

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AÑUAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

#### Lehiaketa publikoa Virgen de Estíbaliz izeneko VI-10051, ehiza barrutiko aprobetxamendurako

Lehiaketa publikoa, Virgen de Estíbaliz izeneko VI-10051 ehiza barrutiko aprobetxamendurako, zeina Añua, Arbulu, Zerio, Burgelu, Gazeta, Ilarratza, Jungitu, Matauko eta Oreitiako Administrazio Batzarrei dagozkien lurrek osatzen dute barrutia, eta horien titularra, jabeen elkartearen ordezkaria denez gero, Añuako Administrazio Batzarra da, Añuako Administrazio Batzarrean interesdunen eskura dauden baldintzen arabera.

Lizitazio oinarria mila eta zortziehun euro da (1.800,00 €) BEZa barne. Zenbateko hori gehiago eskainiz hobetu ahal izango da. Gainera, tokiko ehiztariek ehiza barrutian parte hartzeko baldintzak baloratuko dira.

Behin betiko bermea esleipen prezioaren ehuneko bost (5%) izango da.

Ehiza barrutiaren ehiza aprobetxamendurako errentamendu aldia hamar (10) urtekoa izango da.

Eskaintzak aurkezteko zortzi egun (8) naturaleko epea izango da, iragarki hau ALHAOn argitaratu ondorengo egunetik aurrera.

Virgen de Estíbaliz izeneko VI-10051 ehiza barrutiko aprobetxamendua adjudikatzeko, Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak esparrua onetsi beharko du lehenago, dagokion foru agindua izenpetuz.

Añua, 2024ko irailaren 27a

Lehendakaria  
RUBÉN BRAVO